

**EX-
CUR-
SIO-
NES**

**IR-
TE-
ERAK**



2015

GIPUZKOAKO APO LASTERKARIEN POPULAZIO BAKARRA EZAGUTU NAHI?

- Antolatzailea: Aranzadiko Herpetologia saila
- Data: Maiatzak 8
- Ordua eta abiapuntua: 21:30 Plaiaundiko Parke Ekologikoa
- Deskribapena

Ibilbide honetan Euskal Kostaldeko anfibiorik mehatxatuena behatzeko aukera eskaintzen dugu, Txingudiko apo lasterkaria hain zuzen ere. Txangoa gauez egingo da eta Plaiaundin (maiatzak 9) eta Jaizubian (maiatzak 10) burutuko diren auzolanei hasiera emango die. Auzolanak apo lasterkariaren habitata hobetzeko antolatu dira eta putzu berriak sortuko ditugu.

- Informazio gehigarria

Oinetako aproposak eramatea komeni da, bai eta linternak edo frontalak.




BIZKAIKO APO LASTERKARIEN POPULAZIO BAKARRA EZAGUTU NAHI?

- Antolatzailea: Aranzadiko Herpetologia Saila
- Data: Maiatzak 15
- Ordua eta abiapuntua: 21:30 Barinatxeko hareatzaren parkingean (surf egiteko arauak azaltzen dituen kartelaren ondoan)
- Deskribapena

Nahiz eta Eredu Babestua ez izan, Getxo eta Sopela batzen dituen kostaldeak fauna eta flora espezie ugari ditu. Horien artean bereizgarria da apo lasterkarien populazioa, Bizkaian aurki daitekeen bakarra alegia. Populazio hau Gorrondatxe/Azkorri eremuan bizi da. Gauez egingo dugun irteerak Barinatxen hasi eta Azkorraino eramango gaitu, non anfibio eta narrastiak ikusteko aukera izango dugun, horien artean apo lasterkaria. Txangoa Sopelan (maiatzak 16) eta Getxon (maiatzak 17) burutuko diren auzolanei hasiera emango die. Auzolanak apo lasterkariaren habitata hobetzeko antolatu dira eta putzu berriak sortuko ditugu.

- Informazio gehigarria

Oinetako aproposak eramatea komeni da, bai eta linternak edo frontalak.



GORBEIAKO HEZEGUNE ETA ANFIBIOAK

- Antolatzailea: Aranzadiko Herpetologia Saila
- Data: Maiatzak 16
- Ordua eta abiapuntua: 10:30 Zigoitiako udaletxearen aparkalekuan. Handik kotxez igoko gara ibilbidearen hasiera punturaino.
- Deskribapena

Zigoitiako Udalarekin batera antolatutako irteera izango da, Aranzadiko bazkide nahiz tokiko herritarrei zuzendutakoa. Txangoaren helburua zonaldeko herpetofauna ezagutzea izango da, bertako anfibioen habitata deskubritzeko pentsatuta dagoena, gure herpetologoek gidaritzapean eta azalpenekin hornituko dena. 4 orduko iraupena izango du eta Manurga-Murua-Etxaguen baso-bideetan zehar murgilduko gara.

- Informazio gehigarria

Janaria eta oinetako aproposa eramatea gomendatzen da.



ZURE HIRIKO ANFIBIOEN IZAERA EZAGUTU!

- Antolatzailea: Aranzadiko Herpetologia saila
- Data: Maiatzak 30
- Ordua eta abiapuntua: 21:30, Donostiako portua
- Deskribapena

“Biodibertsitatea arrastaka: gure lorategietako anfibio eta narrastiak” tailerraren barruan, gure inguruan bizi diren animalia isil hauek ezagutuko ditugu. Horretarako, Donostiako zenbait parkeetatik gauez igaroko gara bizikletaz horiek ikusi ahal izateko. Parte hartzaileek arrabioen mugimenduak ikusi, txantxikuek haien kumeak nola zaintzen dituzten aztertu, uhandre palmatuen gorteiuz gozatu edo hegoaldeko zuhaitz-igelaren korroak entzungo dituzte.

- Informazio gehigarria

2 orduko ibilbide laua eta eroso izango da: Urgull- Zubimusu-Igarako poligonoa. Irteeran parte hartzeko ezinbestekoa da tailerran izena ematea (informazio gehiago [Cristina Enean](#), tailerraren salneurria: 35€). Bizikleta, linterna eta arropa eta oinetako erosoak eramatea komeni da.



ZURE HIRIKO NARRASTIEN IZAERA EZAGUTU!

- Antolatzailea: Aranzadiko Herpetologia saila
- Data: Maiatzak 31
- Ordua eta abiapuntua: 10:30, Cristina Enea parkeko jauregian (Donostia)
- Deskribapena

“Biodibertsitatea arrastaka: gure lorategietako anfibio eta narrastiak” tailerraren barruan, gure inguruan bizi diren animalia isil hauek ezagutuko ditugu. Horretarako, Donostiako zenbait parkeetatik goizez igaroko gara bizikletaz horiek ikusi ahal izateko. Parte hartzaileek Urgulleko sugandilek haien etsai diren sugandila espezie inbaditzailearekin horma zirrikituak lortzeko nola borrokatzen diren ikusi ahal izango dute; horma-sugandilak hormak erabiltzen dituen ala ez deskubrituko dugu; eta Floridako dortoka gure urmaelak konkistatzea nola iritsi den jakingo dugu.

- Informazio gehigarria

4 orduko ibilbide laua eta eroso izango da: Urgull- Cristina Enea. Irteeran parte hartzeko ezinbestekoa da tailerran izena ematea (informazio gehiago [Cristina Enean](#), tailerraren salneurria: 35€). Bizikleta eta arropa eta oinetako erosoak eramatea komeni da.



SUGEEI, BELDURRIK EZ!

- Antolatzailea: Aranzadiko Herpetologia saila
- Data: Ekainak 6
- Ordua eta abiapuntua: Hitzaldiaren ondoren burutuko da, 12:00ak inguru. Madariaga Dorretxeatik (Busturia) aterako gara
- Deskribapena

“Sugeei, beldurrik ez!” tailerraren barnean kokatzen den ekimena da irteera hau. Sugeak oso mehatxatuak bizi diren animaliak dira, alde batetik haien kontserbaziorako jasaten dituzten mehatxuak daude eta beste aldetik, benetazkoa ez den mehatxua jasaten duen gizartearen jazarpena. Sugeak ez dira arriskutsuak, baina euren fama txarraren eta mitoen biktimak dira. Ezagutza ezak eta fundamentu gabeko kondairek dakarte gehiegizko beldur hori. Honi aurre egiteko errespetua eta lilura sortuko dugu ekimen honen bitartez. Euskadiko Biodibertsitate Zentruan (Madariaga Dorretxea) emango den hitzaldiaren ostean, parte hartzaileek animaliak ikusi eta ukituko dituzte, eta gure herpetologoekin batera haien habitata ezagutu eta sugeak bilatzera joango gara.

- Informazio gehigarria

2 orduko ibilbidea. Irteeran parte hartzeko ezinbestekoa da tailerrean izena ematea (informazio gehiago [Madariaga Dorretxean](#), tailerraren salneurria: 5€). Janaria eta oinetako proposa eramatea gomendatzen da.



SANTIAGOKO DUNA SISTEMAN AUZOLANA

- Antolatzailea: Aranzadiko Botanika saila, Zumaiako Udala
- Data: Ekainak 6
- Ordua eta abiapuntua: 9:00, Aranzadiko egoitzan; 9:30 Zumaian, Santiagoko hondartza parean.
- Deskribapena

Gipuzkoako kostaldearen eremurik handiena itsaslabarrek osatzen dute eta oso eremu txikia geratzen da kostaldeko duna-sistemak sortzeko. Gainera, duna-sistema gehienak giza ekintzaren ondorioz desagertu egin dira, eta hori dela eta, mantentzen direnak kontserbatzea beharrezkoa da.

Santiagoko hondartza Gipuzkoan mantentzen den duna bakarrenetarikoa da baina zoritzarrez hainbat mehatxu pairatzen ditu. Horietako bat landare exotiko inbaditzaileen presentzia da, Santiagoko dunan geroz eta gehiago hedatzen ari direnak. Mehatxu hau ikusirik, Zumaiako Udalarekin elkarlanean, landare hau ezabatzeko auzolana egingo da.

- Informazio gehigarria

Eraman beharrekoak: oinetako erosoak eta hamaiketakoa. Izena ematean joango diren umeen adina adierazi.



AIZPORAUNDI, JAIZKIBEL. EREMU BITXI BAT EZAGUTZERA!

- Antolatzailea: Aranzadiko Botanika saila, Hondarribiko Udala
- Data: Ekainak 6
- Ordua eta abiapuntua: 10:00h, Higer (Hondarribia)
- Deskribapena

Baditu Jaizkibelek hainbat eremu, espezie eta habitat babestu eta bitxi. Horietako bat Aizporaundiko eremua dugu. Badira pare bat urte Aranzadi Zientzia Elkarteak bertako eremuan berreskurapen lanak egitean ari dela. Irteera honetan Jaizkibelgo eremu honetara joango gara eta bertan urte hauetan egin ditugun lanen berri emango da. Familian joateko irteera aproposa izango da.

- Informazio gehigarria

Eraman beharrekoak: oinetako erosoak eta hamaiketakoa.



ARTAITZ, NAXURIETA, ETA BILLABETA

- Antolatzailea: Joaquín Ibarra, Astrolabio Románico
- Data: Ekainak 13
- Ordua eta abiapuntua: 10:00, Santo Tomas Apostoluaren eliza (Naxurieta)
- Deskribapena

Artaitz: Untzitibarrean kokatuta, XII. Mende hasierako San Martin eliza erromanikoa bisitatuko dugu, aurreldea, kapitelak, harburuak, teilatua eta bataiarria aipagarriak direlarik.

Naxurieta: Untzitibarrean kokatuta, XII. Mende bukaerako edo XIII.aren hasierako Santo Tomas Apostoluaren eliza erromanikoa bisitatuko dugu. Eliza honek elementu bereziak ditu, hala nola, absidepeko arku itsu eta harburuak, edota bataiarria.

Billabeta: Longida ibarrean kokatuta, XII. mendeko Garbikundearen Andre Maria eliza erromanikoa bisitatuko dugu. Modiloien kalitateari erreparatuko diogu, Cabestany maisuaren tailerrarekin zerikusia dutenak.

- Informazio gehigarria

Bazkaria tokiko jatetxe batean egingo dugu.



ARALARREKO IBILBIDE EZEZAGUNA

- Antolatzailea: Juanjo Eceiza eta Javier Juanes
- Data: Ekainak 20
- Ordua eta abiapuntua: 08:00, Xanti Hotela (Donostia) edo 9:00, Lekunberrin, Toki Alai Sagardotegia, NA-7510 errepidean Aralarko San Migel bidean, hasieratik 400m-tara.
- Deskribapena

Aralarren ia ezezaguna den ibilbidea egitea posible al da? Irteera honetan Aralar menditik txango liluragarria eskaintzen dugu, esploratu gabeko tokietan murgilduko gara eta. Mapetan agertzen ez diren bidezidorrak miatuz aurkitu genuen ibilbidea zuekin egitea proposatzen dizuegu.

- Informazio gehigarria

Izena emateko azken eguna: ekainak 15, astelehena. Abiapuntua aukeratu behar da alde zuzenetik.

Egun osorako txangoa, kotxe partikularretan (19etan bueltatuko gara).

Janari eta edaria eramatea ezinbestekoa da, ibilbidean zehar iturri erabilgarriak ez baitago.

Argazkiak egiteko asmoa baduzu, izena ematerakoan zure helbide elektronikoa adierazi mesedez.



PERSEIDETARA BIDAIA

- Antolatzailea: Aranzadiko Astronomia Saila
- Data: Abuztuak 8
- Ordua eta abiapuntua: 19:00, Aranzadiko egoitza
- Deskribapena

Astronomia zaleak San Lorentzoren malkoak edo Perseidak ikusteko biltzen gara urtero, eta abuztuaren 8an autobusa hartu eta Nafarroara joango gara begi bistaz ozar-izarraz gozatzeko. Honekin batera, udako konstelazioak bereizten irakatsiko dugu eta Saturno behatzeko gailuak eramango ditugu.

- Informazio gehigarria

Eguraldi txarra suertatzen bada ekimena bertan behera utziko dugu; Autobusaren arabera tokiak mugatuta daude eta gauerdian bueltatuko gara. Oinetako eroso eta berokia eramatea gomendatzen da, edaria baita ere; planisferioak eta prismatikoak eramatea animatzen zaituztegu.



AIZKORRI. DEGURIXA IBARRA, ARAOTZ KANALA ETA AITZULO

- Antolatzailea: Juanjo Eceiza eta Javier Juanes
- Data: Irailak 26
- Ordua eta abiapuntua: 08:00, Xanti Hotela (Donostia) edo 9:30, Oñatin, Soraluze ostatuan, GI-3591 errepidean, Oñatitik Arantzatzura bidea, 1 km-an
- Deskribapena

Aizkorri Parkeko mendebaldean aurki daitezkeen bi altxor bisitatuko ditugu: Araotz eta Degurixako ibarrak.

Araotz: Oñatiko auzoa, Arantzazuko errepidean.

Aitzuloko begia: fenomeno geologiko txundigarria.

Araotzeko kanala, lehenengo ibarraren ikuspegia dugularik.

Degurixa, beste harribitxi geologikoa: haran itxi bat osatzen duen sakonune karstikoa.


- Informazio gehigarria

Izena emateko azken eguna: irailak 21, astelehena. Abiapuntua aukeratu behar da aldez aurretik.

Egun osorako txangoa, kotxe partikularretan (19etan bueltatuko gara).

Janari eta edaria eramatea ezinbestekoa da, ibilbidean zehar iturri erabilgarririk ez baitago.

Argazkiak egiteko asmoa baduzu, izena ematerakoan zure helbide elektronikoa adierazi mesedez.



TORRES DEL RIO, AZUELO ETA AGUILAR KODES

- Antolatzailea: Joaquín Ibarra, Astrolabio Románico
- Data: Urriak 3
- Ordua eta abiapuntua: 10:00, Santo Sepulcro eliza (Torres del Rio)
- Deskribapena

Torres del Rio: Santo Sepulcro elizara joan eta bere oinarri oktogonalaz gozatuko dugu, XII. mendeko bigarren erdialdean eraiki zena. Santiago bidean kokatuta dago eta kalifa-kupula bereizgarria da.

Aguilar Kodes: San Bartolome eliza erromanikoa Aguilar herria baino lehen eraiki zen, XII. mendearen bukaeran hain zuzen ere. Krismoir hirukoztar berezia du, Agnus Dei-a duena, eta dintelean Bibliako V. salmoaren 8. pasartea idatzita du.

Azuelo: Kodes zerran, San Jorge edo Azueloko monasterioa deritzona aurki dezakegu. Eraikin honen lehenengo aipua 922. urtekoa da. Bi aurrealde dituen eliza honek barrualdean eskultura deigarria gordetzen du.

- Informazio gehigarria

Bazkaria tokiko jatetxe batean egingo dugu.



EREÑOTZUKO NATURA

- Antolatzaileak: Aranzadiko Botanika eta Herpetologia saila, Ereñotzuko Auzo Udala (Hernani)
- Data: Urriak 10
- Ordua eta abiapuntua: 9:30, Aranzadiko egoitza; 10:00, Epeleko aterpean
- Deskribapena

Ibilbide honek Hernaniko Epele auzoko aterpean edukiko du hasiera eta Epeleko errekan gora Zepadiko putzutik igaroaz, Etxetxuitan emango zaio amaiera. Ibilbide hau oso aproposa da umeak dituzten familiek egin ahal izateko: oso motza da (3km-ko), ez du apenas maldarik, trafiko gutxi dago eta gainera umeentzako erakargarriak diren elementu natural eta kulturalak daude. Hori dela eta, ibilbide gidatu modura helduei bertako ondare natural eta kulturalak azaltzeaz gain gazte-
txoenei zuzenduta hainbat landare eta zuhaitz ezagutzeko joko moduko bat eskainiko zaie.

- Informazio gehigarria

Eraman beharrekoak: oinetako erosoak eta hamaiketakoa. Izena ematean joango diren umeen adina adierazi.

